

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2003ko APIRILA


Euskal AEko industri jarduera %3,9 hazi zen 2003ko apirilean

2003ko lehenengo lauhilekoan Industri Produkzioaren Indize Orokorra %1,2 igo da.

2003ko apirilean, %4,2 jaitsi zen Euskal AEko industri jarduera, 2002ko hil beraren aldean, 2003ak aurreko ekitaldiak baino bi lanegun gutxiago izan dituelako, EUSTATEk landutako datuen arabera. Datuak balio homogeneotan neurtu ahal izateko lan-egutegiaren eragina zuzenduta, apirileko urte arteko tasak %3,9ko aldakuntza positiboa agertzen du.

Datu horiekin, urteko lehenengo lau hilabeteetako tasa metatuak, aurreko urteko aldi beraren aldean, %1,4ko hazkundea izan du balio absolutuetan neurtuta, eta %1,2koa lan-egutegiaren balio homogeneotan neurtuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2003



Iturria: EUSTAT

2003ko apirilean, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio homogeneotan, sektore hauei egokitu zaizkie: metalezko eta ez-metalezko meak, ehungintza eta jantzigintza eta petrolio finntzea arloei %20tik gorako tasekin, eta material elektrikoa (%12,9), kautxua eta plastikoa (%11,5), eta ez-metalezko industria (%10,5) arloei, besteak beste.

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan dituzte: larruaren eta oinetakoen industria (%-10,8), elikagai-industria (%-5,0), makineria (%-3,7), bestelako manufakturak (%-3,2) eta zurgintza (%-2,8) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2003ko apirilean, igo egin da, balio homogeneousan bitarteko ondasunen (%5,0) urte arteko tasa, baina jaitsierak izan dituzte kontsumo-ondasunen (%-1,2) eta ekipo-ondasunen (%-0,2) tasek.

Urteko lehenengo lauhilekoan, hazkunde metatu handienak sektore hauei egokitu zaizkie: ehungintza eta jantzigintza (%6,5), kautxua eta plastikoa (%6,1), material elektrikoa (%6,0) eta garraio-materiala (%5,3), arloei, besteak beste.

Tasa metaturik negatiboenak, berriz, honako hauek izan dituzte: larruaren eta oinetakoen industria (%-15,8), bestelako manufakturak (%-8,7), elikagai-industria (%-3,6) eta petrolio finntzea (%-2,0) arloek, batik bat.

Lehenengo lauhileko honetan, aldakuntza metatuek honako datuak ematen dizkigute: bitarteko ondasunek (%2,4) eta ekipo-ondasunek (%0,5) hazkundeak izan dituzte, baina kontsumo-ondasunek %2,6ko jaitsiera izan dute.

Lehenengo lauhilekoko joera positiboa izan da hiru herrialdeetan: hazkundeak neurritsuak izan dira Araban (%0,4) eta Gipuzkoan (%0,6) eta Bizkaia (%2,1) izan da hazkunde-tasarik altuena izan duen herrialdea.

Taula: 2003ko APIRILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasa (%)

Kontzeptua	Aurreko urteko hil beraren aldean		2002ko urtarril-apirileko tasa metatua		2003ko urtarril-apirileko tasa metatua	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	-4,2	3,9	-0,7	0,4	1,4	1,2
Araba	-6,4	2,1	0,4	1,6	0,6	0,4
Bizkaia	-2,0	5,8	0,0	1,0	2,3	2,1
Gipuzkoa	-5,5	2,7	-2,0	-0,8	0,8	0,6
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE						
Bitarteko ondasunak	-2,5	5,0	-1,2	-0,3	2,6	2,4
Kontsumo-ondasunak	-9,2	-1,2	2,6	4,2	-2,2	-2,6
Ekipo-ondasunak	-9,6	-0,2	-1,1	0,1	0,8	0,5

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa+34-945-01 75 01

Prentsa oharrak Interneten: www.eustat.es

